

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jone Arriaran Etxeberria

*Oñati,
Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



Oñatiko Lekunberri auzoan jaioa. Gurasoak baserrikoak ziren, ama Karriuena, eta aita Eztenagakoa (Murgia). 7 seme-alabei hika egin zieten gurasoek, eta anai-arreben artean hika egiten jarraitzen dute. Gaztetxotatik hasi zen lanean: 12 urterekin umezain. Bi alaba eta seme bat izan zituen. [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Mari Karmen](#) ahizparekin batera.

Zintak

ONA-266

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-28
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

ONA-267

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-28
- **Iraupena:** 31 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Gurasoek hika egiten zieten beti

- **Erref:** ONA-266/002
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Gurasoek hika hitz egiten zieten beti. Auzokoei edo beste pertsona batzuei, berriz, zuka. Anai-arreben artean hika hitz egiten dute. Zuka hitz egitea konfiantzarik ez edukitzea litzatekeela diote.</p>

2. Gaztetan Galarza medikuarenera joan zenekoa

- **Erref:** ONA-266/006
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:05:47. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

<p>Mari Karmenek Garai lantegian lan egin zuen ezkondu arte. Lantegitik irtendakoan larritasuna sentitzen zuen eta amari esan zion. Galarza medikuarenera joan zen eta urdaila erorita zuela esan zioten. Aitarekin etxean izan zuen elkarrizketa.</p>

3. Lagun gutxirekin hika

- **Erref:** ONA-266/010
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:12:44. **Bukatu:** 00:14:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Lagunekin zuka egiten dute. Mari Karmenek lagun bakar batekin hitz egin izan du hika. Beste lagunak batekin hitz solteak bakarrik. Ohitura kontua da. Konfiantza handia izanez gero, nahi gabe ateratzen omen dira hitz edo esamolde solteak.</p>

4. Hika egitea zakarragoa?

- **Erref:** ONA-266/016
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:18:52. **Bukatu:** 00:20:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Jonari iruditzen zaio hika hitz egitea zakarragoa dela zuka egitea baino. Horregatik ez diote hika egin etxekoa ez den inori. Mari Karmenek, berriz, ohitura falta dela dio. Hika egitea konfiantza handiagokoa dela uste du.</p>

5. Gurasoek seme-alabei hika

- **Erref:** ONA-266/018
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:26:12. **Bukatu:** 00:26:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Gurasoek hika hitz egiten zieten. Joera hori zuten beste guraso asko egongo zirela dio Mari Karmenek. Hika egiteak ez zuen esan gura gutxiago maite zituztenik. Aitaren esaera.</p>

6. Argentinako senidea hunkituta, hika entzutean

- **Erref:** ONA-266/030
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:39:32. **Bukatu:** 00:40:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Joneri hika aurrera ateratzea gustatuko litzaioke, nahiz eta berak seme-alabei ez dien erakutsi. Mari Karmenek kontatzen du Argentinan bizi zen senide bat bisitan etorri zitzaientean, hika entzun eta hunkitu egin zela, aitaren hizketa zetorkiolako burura.</p>

7. Kategoria handiagokoei zuka

- **Erref:** ONA-266/035
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:44:42. **Bukatu:** 00:45:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Garai batean kategoria handiagoko pertsonen hika hitz egitea pentsatu ere ez. Konfiantzarik eta ohiturarik izan ezean, ez dute hika egiten. Baina errespetu falta ote da hika egitea?</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com